


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko maiatz

EAEko industria-jarduerak % 7,5eko jaitsiera izan zuen 2012ko maiatzean

2012ko apirilarekin, hots, aurreko hilabetearekin alderatuz, EAEko industria-produkzioak % 1,7ko igoera izan zuen

Eustatek landutako datuen arabera, EAEk 2012ko maiatzean industria-produkzioak % 7,5eko jaitsiera izan zuen 2011ko maiatzarekin alderatuz, lan-egutegiko termino homogeneotan, Eustatek landutako datuen arabera. 2012ko apirilarekin, hots, aurreko hilabetearekin alderatuz, EAEko industria-produkzioak % 1,7ko igoera izan zuen, betiere urtaro-efektuak zuzendu eta gero.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreka, eta industria-sektore handien sailkapenetik abiatuta, 2012ko maiatzeko indizearen bilakaerak jaitsierak izan ditu industria-sektore handi guztietan 2011ko maiatzarekin alderatuz. Energiak % 13,5eko jaitsiera izan du, Bitarteko Ondasunak % 9,5 jaitsi dira, Ekipo Ondasunak % 2,3 murriztu dira, eta Kontsumo Ondasunek, guztira, % 5,9ko beherakada izan dute, Kontsumo Iraunkorreko Ondasunek nahiz Kontsumo Ez-iraunkorreko Ondasunek izandako jaitsiera dela-eta, zehazki, % 8,0ko eta % 5,3ko jaitsierak, hurrenez hurren.

2012ko maiatzean, hiletik hilerako aldaketa desberdina izan da industria-talde handietarako. Energiak % 2,1eko jaitsiera izan du, Bitarteko Ondasunek, berriz, % 0,5eko jaitsiera izan dute, baina Ekipo Ondasunak % 3,6 igo dira, eta Kontsumo Ondasunek % 1,2ko igoera izan dute guztira, Kontsumo Iraunkorreko Ondasunek % 5,7ko hazkundera izan dutelako eta Kontsumo Ez-iraunkorreko Ondasunak % 0,1 igo direlako.

2011ko maiatzarekin alderatuz 2012ko maiatzean hazkunderak izan dituen sektore garrantzitsu bakarra *Garraio-materialena* da, % 1,0ko areagotzearekin.

**1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea
Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38
sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,6
09 - Kautxua eta plastikoak	-20,9
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-10,8
13 - Makineria eta tresneria	-3,6
14 - Garraio-materiala	1,0
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-9,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-0,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-4,3

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Alderantziz, *Kautxuaren eta Plastikoaren* sektoreak urtetik urterako % 20,9ko jaitsiera izan du, *Energia Elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren* sektoreak, berriz, % 10,8ko murrizketa izan du, eta *Egurraren, paperaren eta arte grafikoen* sektorea, aldiz, % 9,4 jaitsi da.

Lurralde historikoei dagokienez, Industria Produkzioaren Indizean maiatzeko urtetik urterako bilakaera negatiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban % 8,4ko beherakada izan du, Bizkaian, berriz, % 7,6 murriztu da, eta Gipuzkoan, oster, % 6,9 jaitsi da. Hiletik hilerako hazkunde-tasa negatiboa izan da Araban, % 2,7ko jaitsiera izan baitu bertan, baina Gipuzkoan % 3,9 hazi da, eta Bizkaian % 1,9 igo da 2012ko apirilarekin alderatuta.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 maiatza (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak	
	2012Mai / 2011Mai	M(2012Mai) / M(2011Mai)*	2012Mai / 2012Api	2012Api / 2012Mar
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,5	-6,3	1,7	-1,6
Araba/Álava	-8,4	-3,0	-2,7	-0,3
Bizkaia	-7,6	-8,4	1,9	-2,8
Gipuzkoa	-6,9	-6,0	3,9	-1,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-5,9	-3,7	1,2	-4,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,0	-8,6	5,7	-3,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorak	-5,3	-2,3	0,1	-5,0
Ekipo-ondasunak	-2,3	-3,0	3,6	-0,5
Bitarteko ondasunak	-9,5	-7,2	-0,5	-2,3
Energia	-13,5	-14,5	-2,1	0,1

(*) 2012ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari \(IPI\) buruzko datu-bankua](#)